

BESARO

LANDA HOTELA



*Iratiko oihanaren
sarreran*



Tel.: 948 890 350
www.besaro.es
hotel@besaro.es

www.facebook.com/HotelRuralBesaro



TERMOMETROA

AHT LAPURDIN

Zundaketak ezkutuan

Gendarmeeek bi lagun atxilotu zituzten Biriatuan zundaketak baimenik gabe egiteagatik. AHTren kontrakoek kezka azaldu dute, tren linea eraikitzeko lanak ez direla gelditu erakusten baitu horrek.

| JON TORNER ZABALA |

POLIZIAK D2S International enpresako bi langile atzeman zituen otsailaren 21ean Biriaturko lur sail pribatu batean, AHTren linea berriaren balizko bibrazioak neurtzen ari zirenean, zundaketak egiteko baimenik ez zutelako.

Lur-sailaren jabeak, RFF konpainiak azpi-kontrataturiko D2S enpresako bi langileak ikusi zitue-nean, poliziarri dei egin zion, baita AHTren aurkako Nivelles-Bidasoa elkarteko kideei ere. Denbora gutxian hogeitatu lagun bildu ziren bertan, zundaketak oztopatu asmoz. Jendarmeeek Hendaia-ko polizia-etxera eraman zituzten bi langileak, ez zituztelako Herri-ko Etxearen eta Prefeturaren baimenak.

Lurjabeak eta Nivelles-Bidasoa elkartek salaketa bana jarri zuten, "etxera bortxaz sartzeagatik". Zigor bezala, euro sinboliko bat ordaintzeko eta zundaketaren datuak deuseztatzeko eskatu dute. RFFko ordezkariak, ordea, prefetaren baimena zutela esan dute, baita Herriko Etxea jakinaren gainean zegoela ere. Teknikariek gaizki ulertze bat gertatu izana posible dela gaineratu dute.

Gertaerak AHTren aurkako kolektiboen kezka piztu du, RFFk jakinarazi baitzuen baliagarritasun publikorako inkesta egin arte ez zituela zundaketak abiatuko. Inkesta hori 2013ko bigarren erditik aurrera zen egitekoa. ■



GAIZKA IROZ

AHTren aurkako ekintzaileak Biriatur zundaketa lanak eragozten.